08
Udal Aldizkaria
iraila 2006

# BERGARA



BERGARAKO UDALA

www.bergara.net










## Iradokizun orria barnean

Udalak zuen iradokizunak jasotzeko bide desberdinak eskaintzen dizkizue; aldizkari honetan aurkituko duzuen iradokizun orria bete eta Udaltzaingoaren ondoan dagoen kutxatilan sartu, www.bergara.net web orrian...

## *Incluye hoja de sugerencias*

*El Consistorio ofrece dos posibilidades para hacer llegar vuestras sugerencias. La primera posibilidad es rellenar la hoja adjunta y depositarla en la urna que se encuentra junto a la Policía Municipal, y la segunda, mediante la web www.bergara.net*

08

# DOMINGO IRALA KALEAK BOULEVARD ITXURA IZANGO DU

## DOMINGO IRALA KALEA SAN MARTIN PLAZATIK BEHERA DATORREN KALETIK IRIZAR JAUREGIRAINO GUZTIZ BERRIZTUKO DA.

Domingo Irala Kaleak, eraldaketa obren ondorioz, Boulevard baten itxura hartuko du; oraingoa baino zabalagoa izango da, herriko alde zaharra eta berria batuko ditu, oinezkoek lehentasuna izango dute, zuhaitz ugari landatuko dira, iturria, plazatxoa eta komun publikoak ere izango dira, etab.

Domingo Irala kalea berritzeko proiektua aspalditik dator. Orain dela 10 urte inguru ekin zitzaion proiektuari eta Udala kalean terrenoak dituzten bizilagunekin hitz egiten hasi zen. 10-12 bizilagunekin izan ditu Udalak elkarrizketak eta akordioa gauzatu ondorioz, bizilagunek, Udalari lurrak laga dizkiote berurbanizazioa gauzatu ahal izateko, eta trukean, euren lokalak lokal komertzial izateko baimena izango dute.

### Proiektua, hiru fasetan burutuko da.

Proiektua burutzeko, hiru fase desberdin antolatu dira, eta fase desberdinen arteko geldialdiak ekiditu beharko dira. Lehengo fasea abenduan hastea nahi du Udalak eta horretarrako obrak lehiaketara lehenbailehen atera beharko dira. hainbat material erabiliko dira lanetan, galtzadarria eta granitoa, esaterako.

Lehengo fasean, kaleko zoru guztia jaso beharko da eta Gasparreko garajea eta Sagarpe bota eta kale erdiko plazatxoa egingo da. Fase honetako obrek 200 egun inguru iraungo dute, eta beraz, lehenengo fasea datorren urteko udarako amaituta izango da. 1.439.993,32 €ko aurrekontua du.

Bigarren fasean, Irizar jauregiaren parkeko hormak eta loradegia berrantolatuko dira. Honek 650.000 euroko aurrekontua du.

Hirugarrenean, Usoa eta Euxebio pareko terrazen espaloia berdinduko da. Plazatik behera datorrenak kalea osotasunean ikusi ahal izango du. Honek 200.000 euroko aurrekontua du.
Domingo Irala kale berrituan 40 zuhaitz baino gehiago landatuko dira (palmondoak eta ezkiak) eta hauetxen artean, lur azpiko edukiontziak jarriko dituzte Ariznoa tabernaren parean egingo duten plazatxoaren ondoan, Gaspar ondoko garajeen ondoan eta Irizar kalean.

Eraikiko den plazatxo txiki horretan, ikuskizunak antolatzeko aukera izango da eta horretarako argi eta ur hartuneak jarriko dituzte. Inguru horretan, iturri bat ere ezarriko dute. Irrintzi taberna parean, komun publikoak jarriko dira eta oinezkoak esertzeko parterreak, hau da, buelta guztian eserlekua duten lorategitxoak. Azken hauek, Irizar jauregiaren aurrean ere kokatuko dira.

### Oinezkoek lehentasuna izango dute.

Beste herri eta hirigune batzuetan gertatzen ari den bezala, erdigunean eta kasko historikoetan oinezkoek izango dute preferentzia; autoendako bidea egongo da, orain bezala, baina ezin izango da aparkatu. Agian, etorkizunean, oinezkoak bakarrik ibiltzeko kalea izango da, baina oraindik ez dago erabakita. Kale hau bergararrendako kale garrantzitsua da eta ondorioz, lasaia izan behar du. Horregatik, trafikoari limiteak jarriko zaizkio.

BEB Arkitektoak enpresak egin ditu proiektuaren planoak, bi helburu bete nahian. Batetik, kalea bere osotasunean ikustea, eta bestetik, herriko alde zaharra eta berria batera eta bistan uztea.

2.250.000 euroko aurrekontua du proiektu osoak. Aurrekontu totalaren %30a Izartu programaren dirulaguntzen bidez finantziatuko da.

## 1.986 urtea





## 2.006 urtea





## Etorkizunean







Fase primera
- Las obras comenzarán en diciembre.
- Se derribarán los garajes del Gaspar y Sagarpe. Se construirá una pequeña plazoleta.
- Esta fase estará concluida para verano del 2007.

Segunda fase
El parque y jardín del Palacio Irizar se reorganizará integrando el jardín en la calle Domingo Irala.

Tercera fase
El espacio de las terrazas del Euxebio y Usoa se integrará y se llevarán a cabo mejoras de accesibilidad.

Presupuesto total
2 millones de euros. Un 30% de este presupuesto se financiará con las ayudas del programa Izartu, que otorga el Gobierno Vasco.

# (ESAN BEHARREKOAK)




Estimad@ vecin@:

Tras el período vacacional me dirijo a vosotr@s para presentaros un nuevo número de la revista municipal. Como podéis observar en este ejemplar y como no podía ser de otra manera, la ejecución de las obras y los proyectos expuestos en ejemplares anteriores siguen su curso.

Con el propósito de mejorar la calidad de vida de l@s bergareses-as, el gobierno municipal, está acometiendo proyectos vertebradores para el municipio del mañana. En este sentido, el 16 de setiembre se puso en funcionamiento el equipamiento deportivo de Agorrosin, el cual se verá complementado para la próxima temporada estival con la adecuación de la zona verde exterior, colindante y con el servicio de spa o balneario. Es gratificante ver hecho realidad un proyecto que desde hace mucho tiempo tod@s teníamos en mente (y que por mor de la economía no se ha podido acometer con anterioridad) y que viene a dar debida respuesta a las necesidades deportivas y de ocio que tenía el municipio.

La adecuación y reurbanización de la trama urbana preocupa y ocupa a este gobierno municipal. No en vano podemos señalar que tras la reurbanización de las calles Artekalea, Masterreka, Goenkalea y cantones, la ejecución de las obras que se están acometiendo en la calle Juan Irazabal están tocando a su fin. Hay que subrayar, que se están concluyento las obras de iluminación exterior de los edificios más emblemáticos y de mayor relevancia y valor histórico-artístico con que cuenta el municipio. La reciente aprobación del proyecto de ejecución de la primera fase de las obras de reurbanización de la calle Domingo Irala (para lo cual se ha contado con la inestimable colaboración de l@s propietari@s afectad@s, que han posibilitado la cesión de los terrenos a dominio público), posibilitará que se materialice la nueva urbanización de un espacio urbano central idóneo para el esparcimiento y relación social, poniendo de este modo mayor énfasis, si cabe, en la apuesta y empeño decidido del equipo municipal por la mejora y transformación urbana del municipio, que redunde junto con la renovación de la imagén urbana, en una mejora en las dotaciones públicas. Hay que mencionar también las importantes obras de regeneración urbana ejemplar que se está acometiendo en la zona de San Antonio-Urteaga, que con la construcción de las nuevas edificaciones y el derribo de la antigua empresa "Movilla S.A.", dejan vislumbrar la configuración de una zona residencial muy atractiva. La conclusión del derribo del edificio número 3 y 6 de la calle Zubieta rubrican la reordenación y mutación pausada, racional y decidida que se está llevando a cabo en los últimos años en Bergara.

Lógicamente, la regeneración y desarrollo urbano tiene su fundamento y base en la redacción y aprobación del planeamiento general. A tal efecto, recientemente se ha procedido por el Pleno municipal a fijar los criterios, objetivos y soluciones del planeamiento, previo estudio y contestación de las sugerencias y observaciones presentadas por l@s interesad@s al documento de Avance de la revisión de las normas subsidiarias. Asimismo, no puedo obviar que en breve se procederá a la aprobación definitiva por la Diputación Foral de Gipuzkoa de los documentos de planeamiento necesarios para el desarrollo urbano residencial de Ubera y Ozaeta.

La rehabilitación de diferentes equipamientos y edificios municipales es otro de los cometidos capitales que ocupan el día a día de esta Administración. Así, cabe señalar que se acaban de concluir las obras de renovación del frontón municipal (cubierta, vestuarios, butacas, etc), que vienen a apuntalar el equipamiento deportivo, así como la actividad que en el mismo se desarrolla. Por otro lado, se acaban de redactar los proyectos básicos para la readecuación y rehabilitación del edificio Arrizuri, con el objetivo de trasladar a este inmueble la biblioteca municipal, así como el referente a la restauración y rehabilitación de la Iglesia del Real Seminario, para la ubicación en el mismo del auditorium. Igualmente, como es bien sabido, de acuerdo con la resolución adoptada por el Pleno celebrado el 21 de marzo de 2005, por el que se convenía con la mercantil "Tavex Algodonera S.A.", que habilitara sus oficinas generales durante los próximos 30 años (prorrogables por otros 10) en Bergara, el Ayuntamiento está participando en la financiación de las obras de rehabilitación del edificio municipal Torre Gabiria, sufragando el 50% de las facturas (el restante 50% lo satisface "Tavex Algodonera S.A.") correspondientes a las certificaciones de obra realizadas.

Este último trimestre se han materializado las obras de adecuación para la puesta en funcionamiento del servicio público de Haurreskola (guardería de 0-2 años) en el edificio escolar Martinez Irala, que a la postre va a redundar en que se pueda optar en breve a este nuevo y necesario servicio público. Asimismo, impulsado desde este Ayuntamiento, el Departamento de Infraestructuras Viarias de la Diputación Foral de Gipuzkoa ha procedido a la apertura del vial de San Antonio-Urteaga, una vez ejecutadas en su mayoría las obras de estabilización de la ladera de Urteaga.

La adjudicación de las obras de adecentamiento del entorno de San Martzial, la redacción de los documentos necesarios para acometer el cinturón verde de Bergara, la acometida de la red de abastecimiento de agua al barrio Murinondo y el seguimiento de los programas de acción de la agenda local 21, entre otras actuaciones, demuestran el compromiso municipal con el medio natural, en aras a programar y apostar por un modelo de desarrollo sostenible.

El inicio del trámite de contratación para la construcción de 38 viviendas tasadas en el solar de la antigua casa de camineros en San Antonio por la sociedad pública "Gipuzkoako Lurra S.A.", junto con la formalización y aprobación de sendos convenios urbanísticos y la campaña para impulsar el Plan de Revitalización del uso del Euskera, van a suponer, además de aquellos que están en marcha, los retos más relevantes a abordar en los próximo meses desde esta institución local.

Estamos ilusionad@s e inmersos en la renovación y desarrollo del municipio, con el propósito de mejorar la calidad de vida de sus vecin@s y de tejer un futuro más justo y mejor para tod@s. Bergara es nuestro punto de partida y nuestra meta, al mismo tiempo.

Vuestro Alcalde.

Herritar maitea:

Oporren ostean hemen naukazue berriro udal aldizkariaren beste ale batekin. Oraingo ale honetan ikusi ahal duzuenez, aurreko aletan azaldutako obra eta proiektuek beren bidea jarraitzen dute, eta ezin zen beste era batera izan.

Bergararren bizi kalitatea hobetzeko asmotan, ordezkari naizeneko udal gobernuak hainbat proiekturi ekin dio udalerriaren etorkizuneko antolaketarako. Ildo horretan, pasa den irailaren 16an Agorrosingo kirol ekipamendua inauguratu eta funtzionamenduan jarri zen, eta datorren udararako kanpoko berdegunea egokitu eta spa edo bainuetxe zerbitzua prestatuko da, bata bestearen ondoan. Poza ematen du denok aspalditik buruan izan dugun proiektua errealitate eginda ikusteak (diruagatik ez balitz lehenago hasita egon beharko zen), Bergarako udalerriak kirol eta aisialdi arloetan zituen premiei behar bezala erantzuten dien proiektua baita.

Hiri antolamenduaren egokitzapena eta berrurbanizazioa dira Udal gobernu honek dituen kezkak eta lan horiek dira lana ematen diotenak. Esan dezakegu, eta ez alferrik, Artekalea, Masterreka, Goenkalea eta kantoiak berrurbanizatu ondoren Juan Irazabal kalea berrurbanizatzeari ekin geniola eta obra hori ere amaitzear dagoela. Herrigune historikoa hobetu eta, dudarik gabe, suspertzeko egiten ari diren lanen artean, azpimarratu beharra daukagu baita ere herriko eraikin enblematikoenak eta historia eta arte ikuspuntutik esanguratsuenak direnak eta baliorik handiena dutenak kanpotik argitzeko lanak laster bukatuko direla. Orain dela gutxi Domingo Irala berrurbanizatzeko obren lehen fasea burutzeko proiektua onartu da (obrek eragindako jabeen laguntza estimagaitzari esker, lurrak jabego publikora zeditzea ahalbidetu dute eta), eta horri esker herri barruan beste espazio bat urbanizatu ahal izango da, hain zuzen ere jendearen atsedenerako eta harremanetarako oso egokia den espazio bat. Horrela, gainera, nabarmenago gelditzen da, udal taldeak herria hobetu eta aldatu nahian egin duen apustua eta horretan buru-belarri ari dela, eta ahalegin horiek guztiek herriaren irudia eraberritzeaz gain ekipamendu publikoak hobetzea ekarriko dute. Herriko hiri antolamenduan egiten ari diren birgaitze-obren kapitulu honetan sartu behar dira San Antonio-Urteaga aldea biziberritzeko burutzen ari diren lan ikaragarriak, eraikitzen ari diren etxe berriekin eta “Movilla S.A.” enpresa zaharra bota ondoren, alde hori oso bizitegi-alde erakargarri bihurtuko dutenak. Zubieta kaleko 3 eta 6 zenbakietako eraikinak botatzeko lanak bukatu dira jada, eta horiek ematen diote bukaera Bergaran azkeneko urteetan burutzen ari den berrantolaketa eta aldaketa pausatu, zentzuzko eta erabatekoari.

Logikoa denez, planeamendu orokorra idaztea eta onartzea izan dira herria biziberritzeko eta garatzeko lanak burutzera bultzatu dutenak. Horretarako, Udalbatza planeamendurako irizpideak, helburuak eta irtenbideak finkatzen hasi da duela gutxi, interesdunek arau subsidiarioak berrikusteko aurrerapenaren dokumentuaren gainean aurkeztu dituzten iradokizunak eta oharrak aztertu eta erantzuna emanda gero. Era berean, badakit laster Gipuzkoako Foru Aldundiak Ubera eta Ozaeta auzoetan etxebizitzen eta herriaren garapenerako behar diren planeamenduko dokumentuak onartuko dituela behin betiko; beraz, hori ere ezin ahaztu.

Udal ekipamendu eta eraikin batzuk birgaitzea da administrazio honek egunero-egunero dituen beste eginkizun nagusienetako bat. Horrela, aipatu dezakegu udal frontoia (estalkia, aldagelak, aulkiak, etab.) eraberritzeko lanak bukatu berri direla, eta horiekin kirol ekipamendua eta bertan burutzen den kirol jarduera indartu egiten dira. Bestalde, ez dela asko idatzi dira Arrizuriko eraikina berregokitzeko eta birgaitzeko oinarrizko proiektuak, ondoren udal liburutegia bertara eramateko, bai eta Errege Mintegiko Eliza eraberritzeko eta birgaitzekoa ere, bertan auditoriuma ezartzeko. Era berean, ondo dakigunez, 2005eko martxoaren 21ean Udalbatzak egindako bileran hartu zen erabakiaren arabera, “Tavex Algodonera S.A.” enpresarekin hitzarmena sinatu zen hurrengo 30 urteetan (epea 10 urte gehiagoz luzatu daiteke) Bergaran dituen bulegoak birgaitzeko, eta, hori horrela, Udala Gabiria Dorrea udal eraikinaren birgaitze lanak finantzatzen laguntzen ari da,egindako obra egiaztapenei dagozkien fakturen %50 bere gain hartuz (gainontzeko %50 “Tavex Algodonera S.A.” enpresak ordainduko du).

Azken hiru hileko honetan Haurreskola (0-2 urte bitartekoentzako haurtzaindegia) zerbitzu publikoa Martinez Irala ikastetxearen eraikinean abian jartzeko egokitze-lanak gauzatu dira, eta horri esker laster hain beharrezkoa den zerbitzu publiko berri hau erabiltzeko aukera egongo da. Era berean, udal honek bultzatuta, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Bide Azpiegituretako Sailak San Antonio-Urteaga bidea ireki du, Urteagako mendi-hegala egonkortzeko lan gehienak burutu ondoren.

San Martzial ingurunea txukuntzeko obren adjudikazioa, Bergarako eraztun berdeari ekiteko beharrezko dokumentuen idazketa, ur sarea Murinondo auzora eramateko lanak eta Tokiko Agenda 21eko jarduerak programen jarraipena dira, besteak beste, udalak garapen iraunkorraren eredu bat programatu eta bultzatzearren ingurumenarekin hartu duen konpromisoaren froga argi bat.

San Antonion, bidezainen etxe zaharraren lursailetan, “Gipuzkoako Lurra S.A.” sozietate publikoak eraikiko dituen 38 etxebizitza tasatuen lanak kontratatzeko tramiteen hasiera, hirigintzako hitzarmenen idazketa eta onarpenarekin eta Euskera Biziberritzeko Plan Nagusiaren kanpainarekin batera, une honetan gauzatzen ari direnez gain, datozen hilabetetan udal erakunde honek dituen erronka nagusienak dira.

Ilusio handiz eta buru-belarri ari gara lanean Bergarako udalerria eraberritzeko eta garatzeko lanetan; izan ere, garbi daukagu herritarren bizi kalitatea hobetu nahi dugula bai eta denontzat etorkizun bidezkoago eta hobea lortu ere. Bergara dugu, aldi berean, abiapuntua eta helmuga.

Zuen Alkatea.

## Finalizadas las obras del frontón municipal

Las obras que se han llevado a cabo durante las últimas semanas en el frontón municipal han concluido.






Con la vuelta de los partidos de pelota los asistentes podrán comprobar la comodidad de las nuevas sillas. La sustitución de las butacas ha supuesto un desembolso de 84.596 euros. Los 688 nuevos asientos son de madera y se recogen automáticamente al levantarse.

Además de cambiar las butacas, se ha arreglado el tejado, los vestuarios y las goteras.

## Gabiria dorretxea zaharberritzeko lanak hasi dira eta urtebete inguru iraungo dutela aurreikusten da

Nahiz eta dorretxea Udalarena izan, Tavex Algodonera enpresak 30 urterako erabilera ziurtatuta dauka Udalarekin sinatutako akordio baten ondorioz, eta honi esker ere, enpresak eraikina birgaitzeko konpromezua azaldu zuen.



Birgaitze lanek urtebete inguru iraungo dute eta lanik handienak dorretxe barruko aldean egin behar izango dituzte. Kanpoko hormak eta teilatua nahiko egoera onean daude, baina horiek ere txukundu egin beharko dira.

Lanen aurrekontua milioi eta erdi eurokoa da. Aurrekontuaren erdiaren kargu lantegia egingo da eta beste erdia Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundia.

Dorretxeak hiru solairu ditu eta guztira 900 metro kuadro inguru. Behe solairuan harrera, bulegoak eta 35 bat lagunendako bilera gela izango dira. Lehenengo pisuan, hainbat bulego eta erabilera askotariko gela hutsa izango dira. Bigarren solairuan, bulego gehiago.

Lehenengo pisuko erabilera askotariko gela hutsean, Tavex Algodonera lantegiaren historia laburbilduko duen erakusketa jarriko dute. Bertan, Tavex Algodonera lantegiaren 160 urteotan ateratako argazkiak, antzinako akta eta kontabilitate liburuak, lantegiak jasotako sariak eta fabrikaziorako tresna txikiak izango dira erakusgai.

Ehungintza enpresatik kanpoko hitzaldi, aurkezpen edota bestelako jardunaldietarako aproposa ere badira behe eta lehen solairuetako batzar eta erabilera askotariko gelak, eta eraikina Udalarena dela kontutan hartuz, izaera dinamikoa eman nahi zaio birgaitutako dorretxeari herritarren zerbitzura ipiniaz.

Gabiria dorretxea XV. mendeko eraikina da, eta etxe gogortu gisa sortu zen. Garaiko gerren ondorioz dorrea moztu egin zuten eta hala ere, Gabiria familiak dorrea berreraikitzea lortu zuten. Geroztik, hainbat eraldaketa sufritu ditu eta XVII. mendean jauregia handitu zuten eta egun ezagutzen dugun itxura eman zioten.

Eusko Jaurlaritzak Monumentu izendatu zuen eta Kultura Ondare kalifikazioarekin babestutako eraikina da 2002. urtea ezkero.

## La calle Urteaga se ha vuelto a abrir al tráfico

La calle Urteaga, que comunica Antzuola y Bergara, ha sido reabierta al tráfico de vehículos durante la tercera semana de septiembre, tras permanecer cerrada durante tres años por el deslizamiento de una ladera que obligó al cierre de esta carretera, en mayo de 2003.



Las obras de estabilización de la ladera las ha llevado a cabo la Diputación, y se han realizado en dos fases, la segunda de ellas, aún en período de ejecución. Según ha anunciado el Departamento de Infraestructuras Viarias de la Diputación, «aunque se abra al tráfico, los trabajos en la zona continuarán hasta primeros de noviembre, en puntos que no afectan al tráfico. Se calcula que para ese mes, la obra ya habrá terminado».

La primera fase de los trabajos en la ladera, se desarrolló a lo largo de 2005, y permitió básicamente la construcción de un muro anclado en la coronación del deslizamiento, así como otro muro anclado a media altura del desprendimiento. La 2ª fase, se está desarrollado durante el presente año, y los trabajos han consistido en la realización de dos muros anclados.

Una vez terminados los trabajos, se habrá repuesto el antiguo camino del ferrocarril y se habrá procedido a revegetar toda la zona afectada por el trabajo de las excavadoras.

Según los datos ofrecidos por la Diputación, la inversión global realizada por el ente foral ha ascendido a 2,6 millones de euros. De ellos, algo más de 1,2 millones se emplearon en la primera fase, y 1,3 millones, en la segunda.

## Narbaiza ehungintza lantegia zena botatzen hasi dira Mekolaldeko industria-gune berria eraikitzen hasteko

Mekolaldeko industria-gune berria eraikitzeko helburuarekin, hasi dira Narbaiza ehungintza enpresa zenaren erakina botatzen. Asmoa, Narbaizatik Murinondoraino, Lazpiur enpresaraino, industria-gune berria egitea da.



Narbaiza egon den tokian, industria pabilioi desberdinak egingo dituzte, eta horietako batean orain San Lorentzon kokatuta dagoen Tornillería Deba enpresa eraikiko da. Tornillería Deba izango da industria-gune berrira joango den lehen enpresa, eta 2007. urte amaieran bertan martxan izatea espero dute. Enpresak San Lorentzon utziko duen lur eremuan etxebizitzak eraikiko dira.

## El Ayuntamiento quiere aclarar que las compañías de seguros no pueden garantizar que sus clientes vayan a ser enterrados en nichos

Hasta hace poco, enterrar a un ser querido en un nicho era más caro que enterrarlo en tierra, y esta diferencia era aprovechada por algunas compañías de seguros que cobraban a sus asegurados una tasa a cambio de que fueran enterrados en nichos. Por ello, el Ayuntamiento quiere recalcar que la decisión de enterrar a un difunto en un nicho o en la tierra depende exclusivamente del Ayuntamiento, y éste toma la decisión en función de disponibilidad y deseo de la familia. Por lo que la compañía de seguros en ningún caso puede garantizar que su asegurado vaya a ser enterrado en nicho aún habiendo abonado la tasa correspondiente al seguro.

Durante los últimos años, la diferencia de precio de las dos formas de sepultura ha ido disminuyendo, hasta haberse igualado este año. El precio de dar sepultura es de 314,95 euros.

## El Ayuntamiento ha adquirido dos cuadros de Nikolas Mugika

El Consistorio se ha hecho con dos pequeñas obras paisajísticas del pintor bergarés Nikolas Mugika para enriquecer el patrimonio pictórico del Ayuntamiento. El coste total de los dos óleos de pequeño formato ha sido de 580 euros.

El cuadro *Getaria*, es un óleo sobre cartón de 18 x 23 centímetros, y la obra *Zarautzetik Getariara* también es un óleo sobre cartón de las mismas dimensiones.

# [ IKUSTEKOAK ]


01













02


03


04



05


# IKUSTEKOAK



06







08



07








09



10

**01**
Agorrosingo kultur eta kirol gune berriaren inaugurazio ekitaldian jende ugari izan zen.
En la inauguración del nuevo complejo cultural y deportivo se reunió mucho público.

**02**
Gobernuz Kanpoko Erakundeentzako 2006rako udal dirulaguntzak aurkezteko epea zabaldu da.
Se ha abierto el plazo para presentar peticiones de subvenciones municipales para ONGs.

**03**
Eli Zubeldia zarauztarra da Udaletxeko Obra eta Zerbitzu buru berria.
La zarauztarra Eli Zubeldia es la nueva jefa de Obras y Servicios del Ayuntamiento.

**04**
Kudeaketa turistikoari buruzko ikastaroa antolatu du Enplegu Sailak. Ikastaroa langabezian dauden pertsonei dago zuzenduta.
Abierto el plazo de inscripción para el curso de gestión turística. El curso está dirigido a personas desempleadas.

**05**
Sendabelar eta altzarien zaharberritzeari buruzko ikastaroak antolatu ditu Udalak.
El Ayuntamiento ha organizado cursos sobre plantas medicinales y restauración de muebles.

**06**
San Martin jaietan haurrek eta nagusiek ederto pasa zuten.
En las fiestas de San Martín se lo pasaron en grande tanto niños como mayores.

**07**
Kultura Etxean Aire Libreko XXXIII. Pintura Lehiaketako kuadroak daude erakusgai.
En la Casa de Cultura se pueden apreciar los cuadros del XXXIII Concurso de Pintura al Aire Libre.

**08**
Haurreskolak urriaren 16an zabalduko ditu ateak.
La guardería pública abrirá sus puertas el 16 de octubre.

**09**
Udal pilotalekuko obrak San Martinetarako amaitu ziren.
Las obras de mejora del frontón municipal finalizaron para San Martines.

**10**
Udala zarata mapa garatzen ari da.
El Ayuntamiento está realizando un plan de gestión integral del ruido.

# Concluye la 1º fase del plan de gestión integral del ruido

El Ayuntamiento está llevando a cabo un plan integral de gestión del ruido. Se trata no sólo de evaluar la calidad acústica sino de poder en marcha una verdadera gestión del ruido que responda a las necesidades y características de Bergara, permitiendo aplicar medidas preventivas y correctoras.

**Objetivos:**

- Evaluar la calidad sonora del municipio.
- Facilitar el cumplimiento de las exigencias legislativas en relación al ruido ambiental.
- Definir objetivos de mejora en base a los indicadores de población afectada por ruido.
- Analizar los escenarios temporales diferentes y efectuar comparaciones.
- Evaluar alternativas de mejora en base a su efecto beneficioso o no en materia de ruido.

El Plan, está estructurado en diferentes fases, y el 2 de octubre se presentará la primera fase que consiste en la evaluación previa y diagnóstico de contaminación acústica. En esta primera fase, se ha evaluado el impacto acústico del tráfico y se ha analizado el ruido industrial y de situaciones particulares.




El plan íntegro tiene un presupuesto de 55.000 €, aunque el Ayuntamiento ha conseguido una subvención del Gobierno Vasco de 11.489 euros.

# Las nuevas ordenanzas de tráfico están ya en vigor

Las nuevas ordenanzas de tráfico han comenzado a aplicarse con la intención de mejorar el mal funcionamiento del tráfico en el pueblo y los problemas que se crean sobre todo por el mal estacionamiento de los vehículos. Hace unos meses se aprobó la nueva ordenanza de tráfico con la que queda modificada la gravedad de las infracciones y la cantidad a abonar en cada una de ellas.

Según las nuevas ordenanzas de tráfico, las infracciones leves se sancionarán con 20 euros, las graves con 100 y las muy graves con 301. Aun así, si el pago de la denuncia se realiza en un plazo inferior a 30 días desde su notificación, a la cantidad a pagar se le descontará un 30%. Junto con esta multa, a los infractores se les quitarán los puntos correspondientes.

**SANCIONES**

- Infracciones leves: 20 euros. Estacionamiento indebido sin obstaculizar el paso.

- Infracciones graves: 100 euros. Estacionamientos en doble fila, en espacios reservados a minusválidos, con obstrucción para el tráfico, frente a garajes y vados, en zonas de carga y descarga, etc .

- Infracciones muy graves: 301 euros. Circular en dirección prohibida, rebasar los límites de alcohol, sobrepasar la velocidad en un 50% de lo estipulado.



# Gizarte zerbitzuen arloan diharduten elkarteentzako 2006rako udal dirulaguntzak eskatzeko epea ireki da

**Araudiaren oinarria**

Oinarri hauen helburua da Bergarako udalerrian gizarte zerbitzuen arloan diharduten irabazi asmorik gabeko elkarteei 2006. urterako dirulaguntzak emateko baldintzak arautzea.

Guzti honen helburua da elkarteak sustatzea, herritarren arteko elkartasuna eta horiek antolatutako ekintzetan parte-hartzea bultzatzea.



**Dirulaguntzaren helburua**

Dirulaguntzak Bergarako udalerrian garatzen diren jarduera zehatzak finantzatzeko erabiliko dira.

**Finantzazioa**

Udal aurrekontuan 22.591,26 euro izendatu dira dirulaguntza hauetarako.

**Zenbatekoak**

Elkarte bakoitzari, bere ekintzak burutu ditzan, eman beharreko dirulaguntza zehazteko, honako hauek hartuko dira kontuan:

a) Udalak aurrekontuetan zehaztutako kopurua.
b) Eskatzaile kopurua
c) Jarduerek Bergarako udalerrian ekintza horiekiko interesa dutenengan duten eragin erreala.
d) 2006. urtean burutu nahi den jardueren proiektua.
e) Proiektuari dagokion aurrekontu zehatza.

**Erabakia**

Eskaerak aurkezteko epea bukatu ondoren, eskaerak Udaleko Gizarte Zerbitzuetako Batzorde Informatzaileak aztertuko ditu, eta agiriren bat falta bada, 10 eguneko epea emango da hura aurkezteko. Epea bukatu, eta agiririk aurkeztu ez bada, zuzenean ukatuko da dirulaguntza-eskaera.

Azkenik, Departamentuak txosten teknikoa egin ondoren, Gizarte Zerbitzuetako Udal Batzorde Informatzaileak dirulaguntzak emateko proposamena egingo dio Gobernu Batzarrari, erabakia har dezan.

Eskaerak aurkezteko epea bukatu eta hiru hilabeteko gehienezko epean hartuko da erabakia. Epea igaro ondoren, Udalak eskaeraren baten gainean erabakirik hartu ez badu, eskaera ez dela onartu ulertu beharko da. Udalak, Batzorde Informatiboaren bitartez, beharrezko deritzon informazio osagarri guztia eskatu ahal izango du erabaki-proposamena formulatu aurretik.

# Gobernuz Kanpoko Erakundeentzako 2006rako udal dirulaguntzak aurkezteko epea zabaldu da

**Xedea**

Deialdi honen xedea da Gobernuz kanpoko erakundeekin lan egiteko programak antolatzeko, garatzeko eta garapen bidean dauden herrialdeetako bizilagunen baldintza sozio-ekonomikoak hobetzeko jarduerak burutzeko dirulaguntzak ematea, baita goian aipatutako herrialdeetako errealitatearekiko herritarren interesa sortzera zuzendutako ekintzak egitea ere.

**Laguntzetarako diru izendapena**

Izendatu den kopurua 62.638,44 € da, 2006ko aurrekontuei egotzita.

Kopuru hori ondoren adierazten den eran banatuko da:

- %10a herrian bertan egingo diren sentsibilizazio arloko ekintzetara bideratuko da.
- Gainerako %90a garapen bidean dauden herrialdeeta ko bizilagunen baldintza sozio- ekonomikoak garatu eta hobetzera zuzendutako ekintzetara bideratuko da.

**Eskabideak**

- Legez eratuta dauden eta irabazi asmorik gabekoak diren Gobernuz Kanpoko Erakundeek eska dezakete dirulaguntza. Beren ekintzek deialdi honen xedearekin bat egin behar dute eta Gipuzkoan izan behar dute egoitza nagusia.
- Deialdi honetatik kanpo geratuko dira Estatu, Administrazio Autonomo, Foru Aldundi eta Aurrezki Entitateren baten menpeko erakundeak.
- Parte hartzen duen GKE bakoitzak, proiektu bakar bat aurkez dezake arlo bakoitzerako (sentsibilizaziorako bat eta lankidetzarako beste bat).

**Proiektuak baloratzeko irizpideak**

Dirulaguntzak banatzeko orduan, aurkeztutako ekintzak baloratzeko ondorengo irizpideak hartuko dira kontuan:

- Herrian bertan egingo diren sentsibilizazio ekintzetarako:
  - Ekintzek bideragarritasuna garantizaturik izatea.
  - Komunitate osoa inplikatuko duten ekintzak.
- Garapen bidean dauden herrialdeetan burutuko diren lankidetza ekintzetarako lehentasuna izango dute, aurreko ekitaldian, Udalak diruz lagundu zuen proiekturen baten jarraipena direnek. Emango zaien dirulaguntza zehazteko honako irizpideak aplikatuko dira:

a.- Proposatutako ekintzek bideragarritasuna garantizatuta izatea.

b.- Ondorengo helburu bat edo gehiago betetzea baloratu egingo da proiektuetan:

- Komunitateko kideen partaidetza bultzatzea.
- Komunitate onuradunaren kideen prestakuntza.
- Emakumeek bultzatutako/bultzatzeko proiektuak izatea.
- Hango erakundeen garapena bultzatzea.
- Komunitateak berak egindako eskariak izatea.
- Ingurumena errespetatzea.

## Aroztegi aretoan lanak erakutsi nahi dituzten artistek eskaria egin dezakete

Aroztegi aretoan lanak erakutsi nahi dituzten artistek eskaria egin dezakete 2006ko urriaren 16ko 13:00ak baino lehen. 2007an Aroztegi aretoan beren lanak erakutsi nahi dituzten artistek eskaera orria bete eta Bergarako Udal Erregistrora jo beharko dute.



Eskatzaileak ondorengo datuak aurkeztu beharko ditu:
- Datu pertsonalak.
- Baldintzen plegu hau ezagutu eta onartzen duela.
- Artistaren ibilbide artistikoari buruzko dosierra.
- Erakusketaren ezaugarri nagusiak.
- Erakusgai jarri nahi diren zenbait artelan edo objekturen argazkiak.
- Erakusketa egiteko egutegi proposamena.
-Erakusgai jarri nahi diren artelan edo objektuen behin-behineko zerrenda, eta bakoitzaren neurriak eta pisua. Batzordeak eskatu ahal izango dio artistari artelanen behin-betiko zerrenda erakusketaren data baino 2 hilabete lehenago. Behin-betiko zerrenda hori ikusita, batzorde mistoak baimena ukatu edo erakusketaren baldintzak aldatu ahal izango dizkio artistari.
- Batzorde mistoak interesgarritzat jo dezakeen beste edozein dokumentu

## Irailaren 29ra arte zabalik dago ludotekan izena emateko epea

Ludotekak urriaren 2an zabalduko ditu ateak eta bertan parte hartzeko izen-emate epea irailaren 29an amaituko da. Izen-ematea Agorrosin Ekintza Gunean egin daiteke, 10etatik 12etara eta arratsaldeko 6etatik 8etara.

Ludoteka astelehenetik larunbatera izango da zabalik, arratsaldeko 5etatik 8etara. Ondorengo taldeak egongo dira:

-Astelehenetan eta asteazkenetan: 3 eta 7 urte bitarteko haurrentzat.

-Astearte eta ostegunetan: 8 eta 12 urte bitartekoek .

-Ostiral eta larunbatetan: 3 eta 9 urte bitartekoek .



Ludoteka lekuz aldatzearen helburu nagusia hartzaileei kalitatezko zerbitzu bat eskaintzea da. Lehengo ludoteka oso egoera kaskarrean zegoen eta Udal ordezkariek Agorrosinen ludoteka jartzeko aukera egokia ikusi zuten.

Bergaran, 3 eta 12 urte arteko haur eta gaztetxoei aisialdi antolatu eta hezitzailea eskainiko zaie ludotekan.

## Zureiragarkiak.net

Gipuzkoako Gazte Informazioko Sareak DOAKO IRAGARKIEN ZERBITZU hau eskaintzen du Interneten. Gazteentzat baliagarriak izan daitezkeen eskaintzak jaso eta haien artean informazio-trukea erraztea da www.zureiragarkiak.net web orriaren helburua.

IRAGARKI TAULA DIGITAL honetan informazio berria jaso edo ezagutarazi ahal izango duzu: artikuluren bat saldu edo erosi, lana eskatu edo eskaini, etxebizitza bilatu edo jendea ezagutu...

www.zureiragarkiak.net

## La guardería pública abrirá el 16 de octubre

La guardería pública acogerá a partir del 16 de octubre niños y niñas de 0 a 2 años.

Este servicio se encuentra en la planta baja de la ikastola Martínez de Irala, y tendrá acceso habilitado por la parte trasera del edificio. El nuevo centro dispondrá de un total de cinco aulas, la distribución de estas aulas se realizará en función de las nuevas inscripciones.

La guardería pública tendrá cabida para atender a unos 55 niños y niñas, por ahora son 13 las inscripciones realizadas, las nuevas inscripciones se podrán realizar en el mismo centro a partir de su apertura.



## Euskara Biziberritzeko Plana ezagutzera emateko kanpaina abian

Bergarako Udalak Euskara Biziberritzeko Plana (EBPN) herritarrei ezagutzera emateko komunikazio kanpaina jarri du abian. Kanpainan EBPNren barruan bideratzen diren hainbat proiekturen gaineko informazioa eskainiko da, proiektu horietako partaideen inplikazioarekin.

Kanpainaren bitartez lortu nahi diren helburuak honakoak dira:

•Hizkuntza normalkuntzan esparru desberdinetan lanean dihardutenek EBPN jende askoren ahalegin bateratu gisa sentitzea.

•Herritarrei modu erraz eta dibulgatibo batean ezagutaraztea herrian hizkuntza normalkuntzaren arloan zer ekimen eta aukera dagoen eta eurak ere protagonista izan daitezen animatzea.

Zabalkundea, nagusiki, hedabideen (tokiko prentsa eta telebistaren) bitartez bideratuko da; baina, horretaz aparte, erabiliko dira beste euskarri batzuk ere: eskuorriak, internet...

Kanpainari irailean eman zaio hasiera Berriketan programa aurkeztuaz eta abendu hasierara arte iraungo du. Bitarte horretan Euskara Biziberritzeko Planeko beste 5 proiektu aurkeztuko dira.




## Berriketan programa berriz ere abian

2006ko urtarrilean jarri zen abian euskaldunberriei euskaraz jarduteko aukerak eskaintzea helburu duen programa hau. Bertan 21 euskaldunberrik eta 16 euskaldunzaharrek eman zuten izena eta 11 taldetxo osatu ziren, 2, 3 edo 4 lagunekoak. Talde horiek astean behin elkartu izan dira, martxotik ekainera bitartean, euskaraz hitz egitera. Gustura ibili direnez, taldekide gehienek jarraitzeko asmoa agertu dute.

Orain, berriz, partaide gehiago animatzeko kanpaina jarri da martxan. Partaide izan nahi duenak edo informazio gehiago nahi duenak ekimenaren bultzatzaile diren 4 erakunde hauetakoren batera jo dezake: Jardunera (Errotalde jauregia), Udaleko Euskara Zerbitzura (San Martin plaza), Udal Euskaltegira (Zabalotegi 13) edota AEKra (Arrizuriaga jauregia).



## Ekaina, uztaila eta abuztuan 2.672 pertsonari egin zaie harrera turismo bulegoan, iaz baino 244ri gehiago

Udako hiru hilabeteetan turismo bulegora aurten iaz baino 244 bisitari gehiago gerturatu dira. Ekainean 586 pertsona izan ziren, iaz baino 156 gehiago. Hilabete honetan etorritako bisitari gehienak, Euskal Herrikoak izan dira, barne turismoa deritzona. Uztailean, 735 turista izan ditugu Bergaran, iaz baino 30 gehiago. Gehienak, Espainiako turistak izan dira. 2005. urtean, uztailean, katalanak izan ziren nagusi, eta aurten aldiz, madrildarrak izan dira nagusi. Abuztuan, 1.351 bisitari izan ditugu, iaz baino 58 gehiago. Batez ere Espainiako turistak gerturatu dira gurera abuztuan ere, baina Europakoak ere aipatu behar dira. Estatukoen artean, katalanak nabarmendu behar dira.

**Bisitari kopurua**

| Hilabetea | 2005 | 2006 |
|---|---|---|
| Ekaina | 430 | 586 |
| Uztaila | 705 | 735 |
| Abuztua | 1.293 | 1.351 |
| Guztira | 2.428 | 2.672 |

Ekaina, uztaila eta abuztuan turismo bulegoak 76 gidatutako bisita egin ditu kasko historikoko monumentuak azaltzen. Bisita hauetan, 702 lagunek hartu dute parte.

**Gidatutako bisitak 2006an**

| | |
|---|---|
| Kopurua | 76 |
| Parte-hartu | 702 lagun |

Aipatzekoa da, abuztuan, bisitari gehien jaso dugun hilabetean, turista askok galdetu dutela Bergaran eta inguruko herrietan ostatu non hartu eta non bazkaldu zitekeen.

Turismo bulegoa irailaren 30erarte egongo da zabalik, baina berriro irekiko ditu ateak urriaren 11tik 15era eta abenduaren 1etik 10era.

# Bidaiarien garraio zerbitzu berriak Debagoienean

- Zerbitzu bizkorrek (Arinek) Arrasate eta bergara Donostiarekin lotuko dute autobidetik.
- Linea biribila (Express zerbitzua) Debagoieneko herrien arteko ardatza izango da. Honek, Zumarragan Renferekin eta Eusko Trenekin (autobusak) lotura izango du.

Irailean Debagoieneko zortzi udalerrietako 62.000 biztanle-entzako errepideko bidaiarien garraio publikoko zerbitzu berria jarri du martxan Gipuzkoako Foru Aldundiak, eskualdeko Udalen eta zerbitzuaren enpresa emakidunaren (Pesa) laguntzaz.

Gipuzkoako Diputatu Nagusiak, Joxe Joan Gonzalez de Txabarrik, Lurralde Antolaketarako Diputatuak, Koldo Azkoitiak eta Ignacio Lakunzak, Arrasateko alkate eta Mankomunitateko presidenteak, bailarako alkateak bertan zirelarik, aurkeztu dituzte hiriarteko zerbitzu berriak, helburu berri hauek lortzekotan:

-Orain egiten den zerbitzua funtsean hobetzea. Horretarako, linea bizkorrak (Arinak) abiatuko dira Bergara eta Arrasate Donostiarekin lotzeko.

-Linea Express berriaren bitartez Debagoieneko herrien arteko eta inguruko bailarekin komunikazioa egokitzea; barneko lineen maiztasuna handitzea (Bertakoak); eta taxi-bus zerbitzuaren bidezko loturak sortzea.



Helburu horiek lortzeko, abian jarriko dira:

### 1. Zerbitzu berriak eta linea berriak:

-Arrasate-Donostia linea bizkorra (Arinak): zuzeneko zerbitzu bizkorrak, Arrasate eta Bergara Donostiarekin 50 minutuan lotuko dituztenak, eta 60-65 minutuan, berriz, ordu jakin batzuetan Bergaran geraldia egingo dutenak. Zerbitzu berriak ibilgailu pribatuari lehia egingo dion eredua izan nahi du.

-Bergara-Oñati-Zumarraga-Antzuola-Bergara linea biribila (Express zerbitzua): eskualde barruko komunikazioak antolatuko ditu, eta Zumarragan Renfe eta Eusko Treneko zerbitzuekin (Urola bailarako autobusekin) lotuko du.

-Eibar-Eskoriatza linea: hiriarteko autobus berriek (Express zerbitzua) Eibar-Bergara tartea egingo dute A-1 autobidetik, eta ohiko zerbitzuek (Bertakoak) bere horretan jarraituko dute.

-Taxi-bus zerbitzua: Leintz Gatzaga eta Elgeta lotuta egongo dira taxi-bus zerbitzuaren bidez. Lehengoa Eskoriatzarekin, eta bigarrena, Bergararekin.

### DATOS

- Bergara-Arrasate-Donostia: En 50 minutos por la autopista cada hora como mínimo.
- Línea circular: Une el Alto Deba con los servicios de tren de las comarcas del Urola.
- Eibar-Eskoriatza: Servicios express y aumento de las frecuencias.

### 2.Maiztasun berriak:

-Arrasate-Donostia linea (Arinak): astelehenetik ostiralera irteerak 30 minutuan behin goizeko 07:00etatik 08:30era bitartean, eta gero, 60 minutuan behin arratseko 20:30ak arte. Autobus batzuek Bergaran geraldia egingo dute. Donostiatik Arrasaterako irteeerak 60 minutuan behin. Maiztasun horiek aldatu egingo dira larunbat, igande eta jaiegunetan.

Linea biribila: bi autobusek 90 minutuan behin kontrako norabideetan egingo dute ibilbidea. Biak Bergaratik aterako dira, bata Oñatira bidean eta bestea Antzuolara bidean. Ibilbideko herri bakoitzak geraleku bakarra izango du.

### 3. Ibilgailu berriak eta gidari gehiago:

-Zerbitzu berrriak egiteko gidari berriak eta autobus gehiago beharko dira. Plantillan 16 gidari berri sartuko dira eta 6 autobus berri.

### 4. Debagoienaren, eta Gasteiz, Iruñea eta Bilboren arteko loturak:

-Eibar-Bergara-Arrasate-Gasteiz linea. 60 minutuan behin Arrasatetik.

-Donostia-Tolosa-Beasain-Bergara-Bilbo linea. Bi bidaia egunean.

-Eibar-Bergara-Zumarraga-Beasain-Iruñea linea. Bi bidaia egunean.

-Oñate-Arrasate-Bilbo linea. Bi bidaia egunean.

-Bergara-Arrasate-Durango-Bilbo linea. Bi bidaia egunean.



Acuerdos más importantes adoptados por el Pleno

## Uztailaren 26ko bilkura

1. Udal planeamenduko Arau Subsidiarioetako 43. area bi exekuzio unitatetan banatzea behin betirako onartzea.
2. Goenkalea eta kantoien urbanizazioaren 8. obra ziurtagiria eta kitapena onartzea. Kitapena 472.847,01 eurokoa izan da.

## Uztailaren 17ko bilkura

1. Errege Seminarioko Elizako erretaula desmontatu, garraiatu, errestauratu eta kokapen berrirako proiektu teknikoa idazteko lana Albayalde enpresari 6.565,6 eurotan (BEZ barne) adjudikatzea.
2. Ubera auzoko (49. areako) Arau Subsidiarioen aldaketari buruz Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretarako Departamentuak emandako txostena onartzea.
3. Udal Planeamenduko Arau Subsidiarioen 3. sektoreko plan partziala behin-behingoz onartzea.

## Uztailaren 6ko bilkura

1. Udal Planeamenduko Arau Subsidiarioen errebisiorako abantzearen dokumentuari aurkeztutako iradokizunei erantzutea eta errebisiorako irizpide, helburu eta konponbideak finkatzea.

## Uztailaren 3ko bilkura

1. Udalaren, Mizpirualde Egoitzaren eta Udal Euskaltegiaren 2006ko aurrekontuak behin-behingoz onartzea.

## Ekainaren 26ko bilkura

1. Pablo Ibarren alde Legebiltzarrak onartutako adierazpenarekin bat egitea.
2. Gizarte zerbitzuen arloan diharduten elkarteentzako 2006ko dirulaguntzak arautzen dituzten oinarriak onartzea. Banatu den dirua 22.591,26 euro da.
3. Mugertza 12, 14 eta 16ko ur zikinak sare orokorrean hartzeko lanen proposamen teknikoa eta baldintza administratiboen pleguen onartzea 12.007,55 euroko lizitazio oinarriarekin.

## Ekainaren 19ko bilkura

1. Zerbitzu publikoak eskaini eta jarduera administratiboak burutzeagatik ordaindu beharreko tasen ordenantza arautzailearen aldaketa behin-behingoz onartzea, zehazki K epigrafearena (igerilekuak eta kiroldegiko instalazioak erabiltzea).
2. Nicolas Mujika margolari bergarararren bi koadro erostea 580 eurotan.
3. Goenkaletik Madalena plazarainoko zatiaren urbanizazioan aparejadoreari dagokion zuzendaritza eta osasun eta segurtasun koordinazioa eramateko lanak 6.598,21 eurotan adjudikatzea.
4. Euskara Zerbitzuak kudeatutako programen konturako zenbait dirulaguntza arautzen dituen arautegiari hasierako onarpena ematea.
5. 16-2 exekuzio unitatearen delimitazioa aldatzea eta hiru exekuzio unitate delimitatzea.
6. Larramendi eremuan industria garatzeko arau subsidiarioen aldaketari hasierako onarpena ematea.
7. "Orteibar Promociones S.L." eta "Construcciones Goitu S.A." enpresek egiten duten Erregetxo 1eko eraikinaren erabilpen zesioa onartzea.
8. Haurreskolako ekipamendu ezberdinak (altzariak) hornitzeko proposamen teknikoa eta baldintzen administratiboen plegua onartzea, 20.592,47 euroko lizitazio oinarriarekin.

## Pleno del 26 de julio

1. Aprobación definitiva de la división en dos unidades de ejecución del área 43 de las Normas Subsidiarias de Planeamiento Municipal.
2. Aprobación del 8º certificado de obra y de la liquidación final de las obras de urbanización de la calle Goenkalea y cantones. El importe de la liquidación final es de 472.847,01 euros.

## Pleno del 17 de julio

1. Adjudicación de la redacción del proyecto técnico para desmontar, transportar y restaurar el retablo de la Iglesia del Seminario y reubicarlo a la empresa Albayalde en 6.565,6 euros, iva incluido.
2. Aprobación del informe emitido por el Departamento para las de Infraestructuras Viarias de la Diputación Foral de Gipuzkoa en torno a la modificación de las Normas Subsidiarias en el barrio de Ubera (Área 49)
3. Aprobación provisional del Plan Parcial del Sector 3 de las Normas Subsidiarias de Planeamiento Municipal.

## Pleno del 6 de julio

1. Respuesta a las sugerencias presentadas al documento de avance para la revisión de las Normas Subsidiarias de Planeamiento Municipal y establecimiento de los criterios, objetivos y soluciones para la revisión.

## Pleno del 3 de julio

1. Aprobación provisional de los presupuestos del Ayuntamiento, de la Residencia de Ancianos Mizpirualde y del Euskaltegi Municipal correspondientes al ejercicio 2006.

## Pleno del 26 de junio

1. Adhesión a la declaración a favor de Pablo Ibar aprobada por el Parlamento Vasco.
2. Aprobación de las bases reguladoras de las subvenciones para el 2006 dirigidas a las asociaciones que trabajan en el campo de los servicios sociales. La cantidad total a repartir es de 22.591,26 euros.
3. Aprobación del proyecto técnico y el pliego de condiciones administrativas particulares que regularían los trabajos para recoger las aguas residuales de Mugertza 12, 14 y 16 en la red general de saneamiento, con una base de licitación de 12.007,55 euros.

## Pleno del 19 de junio

1. Aprobación provisional de la modificación de la Ordenanza reguladora de tasas por prestación de servicios públicos y realización de actividades administrativas, en concreto del Epígrafe K (Uso de las piscinas e instalaciones deportivas).
2. Adquisición de dos cuadros del pintor bergarés Nicolas Mujika en 580 €.
3. Adjudicación al aparejador de la dirección de obras y de la coordinación de seguridad y salud para los trabajos de urbanización del tramo que va desde Goenkalea hasta la plaza Madalena, en 6.598, 21 euros.
4. Aprobación inicial de la normativa por la que se regulan diversas subvenciones a conceder a cargo de los programas gestionados por el Servicio de Euskara.
5. Modificación de la delimitación de la unidad de ejecución 16-2 y delimitación de tres unidades de ejecución.
6. Aprobación inicial de la modificación de las normas subsidiarias para el desarrollo de un área industrial en la zona de Larramendi.
7. Aprobación de la oferta de cesión de uso del edificio de Erregetxo 1 presentada por parte de las empresas "Orteibar Promociones S.L." y "Construcciones Goitu S.A."
8. Aprobación de la propuesta técnica y del pliego de condiciones administrativas para el suministro de diverso equipamiento (mobiliario) para la escuela infantil, con una base de licitación de 20.592,47 euros.

# Murinondo

## Auzoaren kokapena, historia eta monumentuak

Murinondo (Muiñondo), Bergarako kalea utzi eta Osintxu aldera hartu bezain pronto eskuinaldera jo eta hantxe dago. Errepide ondoan, baserri gehienak pilatzen diren tokian dago San Blas ermita ere.

Murinondoko San Blas ermita, Bergarako ezagunenetakoa izan da eta bada oraindik



ere. Milaka pertsona bertaratu dira mendeetan zehar, Buruñaoko Amabirjinari edo San Blasi, katarroa senda diezaiela edo erditze zoriontsua izan dezatela eskatuz, edo kandelak eramatera, edo San Blasen kordoia lepoan lotu eta katarroa uxatu asmoz.

Enkantera atera zen ermita hau XIX. mendearen hasieran. Manuel de Albisuak erosi zuen, eta auzoak tratu bat egin behar izan zuen berarekin, ermitaren aurreko erdia eliza-kontuetarako erabilia izan zedin.

### San Anton ermita

Mendixka gain batean dago, bakar-bakarrik, hainbat lekutatik ikusteko moduan. 36ko gerratera arte, kanpai hotsa entzuten zenean auzoko famili guztiak elkartzen omen ziren otoitz egiteko. XVI. mendearen hasieran eraiki zen. Eta 1554koa dugu bere lehenengo aipamena, data horretako diru-sarrerak eta gastuak jasota baitaude.

Laukizuzen erako oinarria, bi isuritako teilatua eta harrizko kanpandorretxoa gainean. Etxaurrean egurrezko bi zutabetan oinarrituta dagoen arkupea. Gain-ezarritako ganga, eta korua zein ganga egurrezkoak. Aldare buruan, XVIII. mendeko San Antonen irudia. Santu honen beste irudi zaharrago bat ere bada, beharbada hasiera hasierako San Anton, aurpegi jator eta xumea eta ezkerreko belarria eskubikoa baino gorago daukana. Egoera txarrean dago tamalez. Santa Katalina, Ebanjelioaren aldean dago eta San Iñazio Epistolaren aldean.

### San Blas ermita

Buruñaoko Andra Mari ermita izenaz ere ezaguna. Martin Perez de Arreseren 1500eko azkenahi edo testamentuan ere aipatzen zuen ermita hau.



Baserri baten alboan dago. Egurrezko hiru aldarez jantzitako arku zorrotza dauka sarreran, eta egurrezko oinarria duen korua. Teilatuan harrizko kanpandorretxoa eta gain-gainean gurutzea. Barroko tankerako erretaula. Eskuinaldeko aldarean, gotiko erako San Blasen irudia.

[ Udal zerbitzuen telefono eta faxak ]

Ayuntamiento:

San Martín de Agirre plaza, 1
20570 Bergara (Gipuzkoa)
Telf.: 943 77 91 00
Fax: 943 77 91 63
E-mail: bergara@bergara.net

ALKATETZA
tel: 943 77 91 01
fax: 943 77 91 63

ARTXIBOA
tel: 943 77 91 32
fax: 943 77 91 63

LIBURUTEGIA-KULTURA ETXEA
tel: 943 77 91 62
fax: 943 77 91 69

ANGIOZARKO LIBURUTEGIA
tel: 943 76 16 19

OSINTXUKO LIBURUTEGIA
tel: 943 76 23 76

GIZARTE ONGIZATEA
tel: 943 77 91 65
fax: 943 77 91 63

HILERRIA
tel: 943 76 27 81
fax: 943 77 91 63

ENPRESA-BATZORDEA
tel: 943 77 91 73
fax: 943 77 91 63

KULTURA
tel: 943 77 91 58
fax: 943 77 91 69

KIROLAK
tel: 943 77 91 67
fax: 943 77 91 63

EUSKARA
tel: 943 77 91 66
fax: 943 77 91 63

INFORMATIKA
tel: 943 77 91 37
fax: 943 77 91 63

KONTUHARTZAILETZA
tel: 943 77 91 64
fax: 943 77 91 63

OBRA ETA ZERBITZUAK-UDAL BILTEGIA
tel: 943 77 91 52
fax: 943 77 91 20

ONDARE ARTISTIKOA
tel: 943 77 91 62
fax: 943 77 91 69

UDALTZAINGOA
tel: 943 77 91 06
fax: 943 77 91 63

KIROLDEGIA
tel: 943 76 56 41
fax: 943 77 91 63

IGERILEKUAK
tel: 943 76 20 51
fax: 943 77 91 63

IDAZKARITZA
tel: 943 77 91 00
fax: 943 77 91 63

HIRIGINTZA ETA INGURUGIROA
tel: 943 77 91 68
fax: 943 77 91 56

L.G./D.L.SS-1242/04

Editatzailea: Bergarako Udala
Egilea: Verbax, Consultores de comunicación
Tirada: Dohainiko 4.000 ale
Banaketa: Udaletxeko sailak, kioskoak eta ogia saltzen den puntuak

www.bergara.net